



ELAK ENPLEGUA ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI DAGOKIONEAN EUSKO JAURLARITZAREN EKINTZA KRITIKATU DU, AZKEN LEGEALDIA BALORATZEAN.

LAU URTE HAUETAN, GOBERNUAK FUNTZIO PUBLIKOA BERE INTERESETARA MAKURTU DUELA EGIAZTATU DU ELAK.

Azken lau urteetan Eusko Jaurlaritzak izan duen jardueraren balorazioa egin du ELAk, berebiziko garrantzia duen arlo batetan: lan harremanak .

Balorazioa egiteko, bi neurgailu funtsezko hartu ditu: Negoziazio Kolektiboa eta Enplegua Administrazioan. Eusko Jaurlaritza da Erkidego honetako enpresarik handiena, 65.000 langile baino gehiago dituelarik.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAri dagokionean, balantzea ezin okerragoa da.
**Gobernu honek bi legealdi besterik ez ditu behar izan, lan harremanetan
jarrera demokratikoak desagertarazteko.**

Gobernuaren ardura zuzenean dauden sektore ia guztiek izan dute nolabaiteko gatazka lan baldintzeekin lotuta. Hauetariko baten bera ere ez da gehiengoarekin akordiorik erdietsi.

**Administrazioek gutxiengoarekiko akordioa hautatu dute sistematikoki.
Akordio hauek alde sindikalik ahulena sinatzen ditu, eta ez dute benetako
arazoak konpontzeko balio. Administrazioak partxeak ipini besterik ez du
egin.**

Osakidetzan gutxiengoarekin akordioak (2005 eta 2007)

Unibertsitatez kanpoko Hezkuntzan:

- 2006 irakasle funtzionarioak gutxiengo akordioa
- Irakasle eta hezitzaile laboralak negoziatorik gabe baitaude 2003tik

Unibertsitate Publikoan.

Langilego funtzionarioak ez du akordiorik 1996tik.

Irakaslego laboralak 1998tik.

Eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalagoak 2005etik.

Esparru honetan negoziazioa erabat blokeaturik dago. Noizean behin baten batek zatikako akordioa sinatzen du, gutxiengoan betiere, eta honela 2007an ezagunak izan diren (gatazka areagotu besterik ez dutelako egin) osagarriak sinatu zituzten.

Administrazio Orokor Autonomoan.

Funtzionarioei dagokienean azken akordioa 2000 urtekoa da. Ordutik gatazkak sortzen joan dira, gutxiengoarekiko beste sinadura batekin itzali nahi izan direnak.

Langileek ez dute lan hitzarmenik 2001etik.

Mahai Orokorrean:

2005 eta 2006an Gobernuak gutxiengoan sinatu zuen, eta 2007an ez zuen lortu nork sinatuko zionik eta dekretua atera zuen zuzenean.

ZER SUPOSATZEN DU GUTXIENGOAREKIN SINATZEAK ?

Gobernu batek, bere ardurapeko esparrutan akordioak gutxiengoarekin soilik sinatu eta bultzatzea oso esanguratsua da.

Prepotentziaren erakusgarri bat da, eta demokraziaren heldugabetasuna adierazten du.

ELAren aburuz, gutxiengoarekiko sinadurak demokraziaren funtsezko oinarri bat apurtzen du erabat: gehiengoarena, hain zuzen ere.

Gainera, hauteskundeetan erdietsitako ordezkartza deuseztatzea dakar, kasu honetan hauteskunde sindikalena. Erakunde sindikalek zilegitasuna badute, langileek ematen dieten ordezkartzagatik da. Hauteskunde politikoan gertatzen den bezala.

Baina Eusko Jaurlaritzak, lan harremanetan, gobernuaren zilegitasuna sostengatzen duen printzipioari berari egiten dio traizioa. Koherentzia arazo larria du Jaurlaritzak.

ELAren ustetan, gutxiengoarekin sinatzeko erabaki politikoa **nahita aukeratzen dute gidari politikoek**, sakoneko gaietan sartzea ekiditzeko.

Gainera, akordio hauek kudeaketa neoliberalean haratago joatzeko erabiltzen dituzte honelako akordioak, osasuna eta hezkuntza bezalako gaietan. Kudeaketa era ekonomizista honek, gabezi larriak uzten dituzte agerian. Giza-baliabideak muturreraino estutzen dituzte, logikak agintzen duena baino gutxiago inbertituz. Langile eta baliabide eskasia, langileen adin bataz beste altuegia, antolakuntza txarra, freskotasuna falta zaion kudeaketa, hiritarrengandik urrun, aspaldi jasaten ditugun gaitzak dira. Arazo guzti hauek negoziazio mahaietara eraman ditugunean, gobernuaren erantzuna sindikaturik ahulena bilatzea izan da, eta berarekin gutxiengoan sinatzea.

ADMINISTRAZIOA GOBERNUAREN INTERESEN ESANETARA

Seguruenik, Administrazio Autonomo Orokorra da lan harremanen haustura gehien nabarmentzen den esparrua, eta Gobernuak bere interesak argien adierazi dituena. 1989ko Funtzio Publikoaren Legeak, Administrazio gazte, progresista eta motibatzaile baterako oinarriak ezarri zituen. Helburu bakar batekin: gizarteari zerbitzu ematea. Baina behin eta berriz legea urratu eta gero, eta gobernuaren neurrirako lege bat egiteko asmotan, 1997an beste testu bat sortu zen.

- Aldaketa honen bitartez, urtero LEP-a deitzeko derrigortasunarekin bukatu zuten.
- Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluaren eraketa eta erabakitze prozedura ere aldatu zuten (1989an 12 kide alde bakoitzean, erabakiak ordezkartzaren arabera hartzen ziren; 1997an 12 kide Administrazioan, 6 sindikatuen aldetik, eta erabakiak talde osoaren gehiengoaren esku, ordezkaritza kontuan hartu gabe).
- 1997ko Funtzio Publikoaren Legeak ordainsari osagarri batzuk bermatzen ditu. Gerora, Gobernuaren baten batek hau aldatzea erabaitzen du eta Ordainsarien Dekretua erabiltzen du Legea eraldatzeko.
- Lekualdatze lehiaketak "ad hoc" prestatu dira, pertsona zehatzei mesede egiteko.

Aipatutakoak Funtzio Publikoaren bilakaera zein izan den adierazten digu.

Eusko Jaurlaritza, urte gutxitan, administrazio gazte, berri, dinamikoa eta hiritarrengandik gertukoa izatetik, burokraziaz, eta ilusio eta motibazio faltaz beteriko administrazioa izatera pasatu da. **Administrazioa interes jakin batzuren mesederako txiringitua bilakatu da, eta beraien nahikeria asetzeko erabiltzen dira lege eta dekretu aldaketak.**

B.- ENPLEGUA

Enplegua negoziazio kolektiboaren elementu garrantzitsuena da. Azken urteotan, **Administrazioan enpleguaren kalitatea okerrera jo du larriki. ELAk ondorioztatu du prekarietatea erabaki politikoa dela.**

Administrazioan prekarietate maila %30ekoa da: 100 langiletik 30ek behin behineko kontratua dute, askotan lege iruzurrean edo zatikako jardunaldiarekin. Esaterako Osakidetzan %27, Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoan %29'04, Administrazio Autonomo Orokorrean %30...

HIRU ADIBIDE, GOBERNUAREN KUDEAKETA TXARRA ERAKUSTEKO, ENPLEGUARI DAGOKIONEAN

1.- HEZKUNTZA

Aurrekontuetan jasotzen den plantilla 17.342 plaza dira. Hauetatik 1.700 inguru lan finkoa ez duten langile ordezkoei betetzen da aurrekontuetako %10 beraz, behin behinekoa da). Gainera, jasotako kopurua ez da nahikoa eta horregatik beste 3.375 pertsona ordezeko bezala lan egiten du, jardunaldi osoan. trabajando como eventuales a jornada completa. Lan Eskaintza Publikoa deitu berri da, 1051 plaza eskeintzen eta aldiz, 4000 baino gehiago dira ordezeko bezala batetik bestera ibiltzen diren langileak.

2.- HAURRESKOLAK PARTZUERGOA. Partzuergoa 2003an sortu zen, beraz, oraintxe arte behin behinekotasuna erabatekoa izan da. Orain, uste asko igarota behingoz parte bat behintzat egonkortu denean LEParen bitartez, bakarrik 500 plaza ateratu dira, eta 800 pertsona daude lanean. Are larriago: beharrezkoak diren 800 horietatik plantillaren zerrenda egitean 600 plaza besterik ez dira aintzat hartzen.

3.- OSAKIDETZA

Arazo berbera. Aurrekontuetan jasotako plantilla 25.017ekoa da. Hauetatik %90ak soilik du berezko lanpostua, hau da, finkoa. Besteak behin behinekoak kubritzen dute.

Gainera gaur egun Osakidetzan beste 3.500 lanpostu daude, estrukturalak direnak, behin behinekoekin kubritzen direnak. Guzti honi gehitu behar diogu urteroko baja begetatiboak 200 inguru direla, eta ondorioz, 4.000 plazako LEPa beharko genuke bakar bakarrik gaur jadanik lanean dauden langileak egonkortzeko. Beraz, atera diren 2.500 lanpostu, benetako beharretik oso urrun daude.

ONDORIOAK

- **Langileen aldetik:** ezengokortasuna, lan baldintza txarragoak, eta, askotan, baldintza horiek direla eta, ez da erreza izaten ordezekoak aurkitzea.
- **Ematen den zerbitzua:** Desegonkortasunak rotazioa dakar, eta, ondorioz, langileen inplikatzeko ezintasuna. Batez ere osasun eta hezkuntza araloetan.
- LEPak **gatazkak geldiarazteko tresna bezela erabiltzen dira, eta murriztegiak dira. Ez dira inoiz enplegua sortzeko erabiltzen.**

ONDORIO OROKORRAK

- o Gobernuak Administrazioa bere agintearen txiringitza bilakatu du eta dekretu eta lege aldatzeak erabili ditu bere interes propioei mesede egiteko.
- o Lan harremanei kalte egitea eta desagertaraztea erabili duten tresna izan da. Horregatik bere ardurapean dituen sektore ia guztietan gutxieneko akordioak sinatu ditu.
- o Ez dira gai izan gehiengoarekin akordioak lortzeko, eta gatazka guztiak gutxiengoarekin sinatutako akordioekin bukatzen saiatu dira, edo zabalik utzi.
- o Horrek gure kudeatzaile politikoen demokrazia eza erakusten du.
- o Gutxiengoarekin sinatutako akordioek politika neoliberalak gauzatzeko erabili dituzte, baliabide gutxi gastatzeko eta sakoneko arazoak konpondu gabe.
- o Lan harremanak ukatzea eta beraien kudeaketa txarra, negoziazio kolektibo arazoak ez konpontzea ekarri du: langileak falta dira, motibazioa ere, batz bestea adin altua dute langileek, errekonozimendurik ez zaie egiten, zerbitzuaren kudeaketa eskasa. Enplegua kudeketa txar honen adibidea da.
- o Gobernuak Administrazioa bere interesen mesederako erabili du, eta ez gizartearen beharren mesedetan.